

2.10. Ezkongaietan

Zortziko airean Jose Maria Iparragirre (?)

Ez-kon-gai- e-tan zer-bait ba-nin-tzan, ez-kon-du e-ta e-zer ez. Ez-kon-gai-
 ez. E-der-za-le-a ba-nin-tzan e-re, as-per-tu nin-tzan e-de-rrez. Ne-re gus-
 to-a e-gin nu-en ta o-rain bi-zi naiz do-lo-rez. E-der-za-rez.

1

Ez kongaietan zerbait banintzan,
 ezkondu eta ezer ez.
 Ederzalea banintzan ere,
 aspertu nintzan ederrez.
 Nere gustoa egin nuen ta
 orain bizi naiz dolorez.

2

Nere andrea andre ederra zan
 ezkondu nintzan orduan.
 Mudatuko zan esperantzarik
 ere, batere ez nuan.
 Surik batere baldin badago,
 maiz dago haren ondoan.

3

Nere andrea alperra da ta
 ez da munduan bakarrik.
 Gauza gozoen zalea da ta¹,
 ez du egin nahi beharrik.
 Sekulan ere ondo izango
 ez halakoren senarrik.

4

Zokoak zikin, tximak jario,
 haurra zintzilik besoan.
 Adabakia desegokia,
 gona zaharraren zuloan.
 Hiru txikiko boteila haundia
 dauka berekin alboan.

5

Larunbatetik larunbatera
 garbitzen ditu zatar bi.
 Bere haietxek berotutzeko
 egur erretan zama bi,
 belaun bietan bana hartuta
 ez da isiltzen kantari.

6

Nere andrea goiz jeikitzen da,
 festara behar danean.
 Buruko mina egiten zaio
 hasi baino lehen lanean.
 Zurekin zer gertatuko zan
 nik bildurrik ez nuan!

Pare bat lekutan ikusi dut kanta honen egile Jose Maria Iparragirre. Baina beste lekuetan ez da aipatzen. Ez nintzateke erabatekorik ezer esaten ausartuko, baina ez diot haren antzik hartzen honi. Egia da bere bizitzarekin ondo etor litekeela, baina hizkera eta egitura aldetik ez zait haren modukoa iruditzen. Horregatik azaltzen da atal honetan eta ez Iparragirreri dagokionean.

1. Emakumeen gozozaletasuna ardozaletasun topiko bera da eta modu honetan ere hainbat abestitan agertzen da.